

# Liburuak

KRITIKA


## Igandetako kronikak

Helduen literatura

*Saioa Ruiz Gonzalez*

KOSTALDEKO HERRI TXIKI BATEAN, turismo pilaketez geroztik etorri ohi den udazkeneko lasaitasuna amaitu da Aroa Lopez desagertu denetik. Ikerketa polizialek ezin izan dute kasuaren inguruan azalpen argirik topatu, eta bizirik hala hilik ote dagoen jakin ezinak familia eta herriko biztanleak aztoratu ditu.

Denak susmagarri bihurtzen dituen ezbehar horren aurrean, herria ohiko bizimodua berreskuratzen saiatuko da. Izan ere, uneoro norbait kolpatua izaten ari den mundu honetan, aurrera egin beharra dago. Besteek jasaten dutenarenganako arduragabekeria izango ote? Edo, agian, “niri ez zait gertatuko” barneratuegi daukagun ustearen eragina? Dena delakoa, eleberrri honetako pertsonaiek bazekiten Sarrionandiaren ipuineko igelak benetan hiltzen zirela, baina ez, aldiz, halako pasarte baten biktima bilaka zitezkeenik. Hori dela eta, Iñaki Irasizabalen eleberrri berriaren izena, *Igelak benetan hiltzen dira*.




*Igelak benetan hiltzen dira.*  
Iñaki Irasizabal.  
Elkar.  
113 orrialde.  
11 euro.

Istorioak asmatzeko gaitasunaz gainera, idazleak agerian utzi du beste esparru batzueganako ezagutza eta interesa baduela. Irasizabalen hitzek, gizarte baten erakusleho izan daitekeen eleberria idazteko asmoa zuela aditzera ematen dute: “Delituen inguruan ardaizten diren istorioak, gure gizartea islatzeko tresna ezin egokiagoa dela uste dut”. Ildo horretatik, eremu soziologikoaren garrantziari eutsiz, eleberrri polizikoaren eta beltzen arteko mugak zehaztu ditu liburuan; lehenbizikoaren itxura ematen dion krimen bat abiapuntu hartuta ere, ez da ikerketa polizial baten prozesua kontatzera mugatzen, edonor errudun izan daitekeen testuinguru mesfidati bat aurkeztuz, nobela beltzera gerturatzen duen giza talde bati buruzko eta erreakzio desberdinen inguruko analisisa egin nahi izan du; narratzaileak berak dioenez, garai eta leku zehatz batean gertatutakoaren “kronika subjektiboa”.

Arin irakurtzen diren 113 orrialdeetan, pertsonaia ugariren istorio indibidualak ezagutzera ematen dituzten eszena labur txandakatuak topatuko ditugu. Aurrera egin ahala, argitu gabeko gertakari latz baten ondoko zauri irekiak azaleratuz joango dira. Iragan mingarri bat atzean uztea, senide bat galdu duten pertsonaientzat, ez da lan erraza izanen. Erantzunen bila, ingurukoaren iragan pribatua nahasteari ekiten diotenean, hastapeneko kasuari beste hainbat ekintza tragiko gaineratuko zaizkio. Horretan datza eleberrriaren misterioa. Bestela ere, igande arratsalde batean eta burua gehiegi nekatu gabe irakurtzekoa. ■



TALLERES  
MITXELENA S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000  
Fresadora: 10.000 x 3.500  
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)  
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

[www.talleresmitxelena.com](http://www.talleresmitxelena.com)